

5.BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Hasteko, uste dugu garrantzitsuena webgune bat sortzea dela; horri esker, gure bezeroek informazioa erraz eskuratu eta gurekin komunikatzeko aukera izango dute. Baina, beste metodo batzuk ere izango dituzte, hala nola, sare-sozialak. Ongi dakigunez, gaur egungo gizartean erabilera handia dute, eta honekin, gazteek gure enpresa eta produktua ezagutzea ahalbidetuko genuke. Horrez gain, iragarki bat sortuko genuke eta telebistara eramaten saiatuko ginateke.

Horrez gain, gure web-gunea eramango duen “manager” bat kontratatzea baliagarria izango litzateke, informazioa eguneratzeko eta bideo erakargarriak sortzeko (sare-sozialetan publikatzeko).

Gainera, gure produktua online erosteko aukera jarriko dugu, honela, denda fisikoan erosteko aukerarik ez dutenek, gure produktua erosteko aukera izango dute. Produktua, Correosen bidez bidaliko da.